

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Ingurumenak ehun urtetik gorako zuhaitzak eta hegaztiak behatzeko aukera emango du asteburu honetan

Hitzorduak larunbatean Ultzaman eta igandean Auritzen izango dira

Osteguna, 2016.eko irailak 22

Ingurumenak asteburu honetan ehun urtetik gorako zuhaitzak ezagutzeko aukera emango du larunbat honetan, hilak 24, Ultzamako ibarrean, bai eta hegaztiak behatzeko aukera ere igandean, hilak 25, Auritzen.

Larunbat honetako hitzorduan, Ultzamako ibarrean barrena ibilbide bat egingo da Nafarroako Gobernuko

basozain baten laguntzarekin ehun urtetik gorako zuhaitzak ezagutzeko, gure ondarearen monumentu naturalak direnak, zinez. "Aiton handiak" titulua duen jardunaldia 10:00etan hasiko da Orgiko basoko informazio-etxolan, eta handik parte-hartzaileak autoan abiatuko dira ibilbidea egiteko.

Monumentu naturalak paisaia, geologia eta historiako balio berezia duten elementuak dira (ehun urtetik gorako zuhaitzak, baso bat edo leize bat), eta haien kontserbazioak babes-mota berezi bat gomendatzen du. Nafarroan [47 zuhaitz berezi](#) monumentu natural modura katalogatuta daude, eta gure lurraldeko espezie eta baso-sistema nagusiak dira.

Jarduera hori "Ingurumen hezkuntzako eta boluntarioria babesteko programa"-ren barnean dago. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentuak iragan udaberrian abian jarritako programa da gizarteari ingurumenaren iraunkortasun, errespetu eta kontserbazio baliok igortzeko asmoz, bai eta klima-aldaketari lotutako arazoak igortzeko ere. Plana Departamentuak ematen dituen zerbitzuak ezagutzera emateko bideratuta dago ere, eta herritarrei bere langile teknikoaren ezagutza helarazteko.

Informazio gehiago lortu nahi duten interesdunek edo programako jardueretan izena eman nahi dutenek, denak doan, 848 42 61 26 telefono-zenbakira dei dezakete, 10:00etatik 14:00etara, edo ondorengo helbide elektronikoetara idatzi: participacion.ambiental@navarra.es edo ingurune.partaidetza@navarra.es. Parte hartu nahi duten pertsonen izena eman behar da, eta harremanetan jartzeko telefono-zenbaki edo helbide elektroniko bat.



Jaunsarats-eko haritza.


Igandea, hilak 25, hegaztien behaketa Auritzen

Astebururako bigarren proposamena igandean, hilak 25, egingo da. Jendearentzat zabalik dagoen [jardunaldi ornitologiko](#) batzuk izango dira "Lindus 2" Europako proiektua ezagutzera emateko, "Hegaztiak klima-aldaketaren adierazle" izena izango dutena. Interesdunek interpretazioko paseo ornitologiko batean parte hartu dezakete, hegazti migratzailek ikus ditzakete, ibilbideak egin bizikleta elektrikoetan eta hegaztien eraztunketan parte hartu. Goiz guztian arreta pertsonalizatua eskaintzen da, eta teleskopio nahiz prismetikoak izango dira bisitariak erabiltzeko.

Jardunaldiari 09:00etan ekingo zaio Ibañetako gailurretik, eta handik ibilbide gidatu bat hasiko da interpretazioko paseo bat eginez eta hegazti migratzaileak behatz, 12:30ean amaitzeko. Gainera, 10:00etatik 14:00etara haur eta helduentzako ibilbideak egin ahalko dira bizikleta estatikoan, aurrez erreserbarako NAN txartela aurkeztuta. Irteera Aurizko frontoitik egingo da, handik Jauregiaroztegiraino joango da atzera Auritzera itzultzeko. 10:00etatik 14:00etara ere, hegaztien eraztunketa zientifikoan parte hartu ahalko da (hegaztien populazioak kontrolatzeko erabilitako metodoa) Jauregiaroztegin, Aurizko frontoitik abiatuta.

Lidus 2 proiektu hori Espainia-Frantzia-Andorra Lurralde Lankidetzarako Programa Eragilearen barnean dago, eta % 65eko finantzaketa Eskualde Garapeneko Europako Funtsetik (EGEF) dator. Honako hauen arteko mugaz gaindiko lankidetzaren bat da: Nafarroako Gobernua, haren GAN enpresa publikoa (Nafarroako Ingurumen Kudeaketa), Aurizko Udala, SEO Bird Life eta Ligue Pour la Protection des Oiseaux (LPO-Akitania).

Proiektu honetan, udazkeneko migrazio-hilabeteetan, ornitologo profesionalak Lindusko lepoan jarritako behaketa-puntuan egoten dira, eta pasatzen diren nahiz zonaldean bizi diren hegaztiak identifikatzeko eta zenbatzeko lanak egiten dituzte. Pirinioetako mendebaldean kokatutako lepo hori puntu estrategikoa da migrazio-pasabiderako gune horrek duen altueragatik eta kokapen geografiko bikainagatik; Europa guztiko hegazti migratzaileak behatzeko puntu garrantzitsuentzat jotzen da. Puntu horretatik guztira Europa mendebaldeko harraparien % 70 inguru igarotzen direla kalkulatu da, bai eta Iberiar Penintsulara heltzen diren migrazio-populazio handia ere, esaterako: zikoina zuria eta beltza, kurrilo arrunta, pagausoa eta txoloma.



Lindusko lepoa.